



Pasaiaiko Udalaren adierazpen instituzionala, indarkeria matxista gaitzesteko

Azken urte honetan, gure herriko jaietan izandako zenbait eraso matxistaren berri izan du Pasaiaiko Udalak. Ildo horretan, Pasaiaiko Udalbatza osatzen dugun alderdi guztiok, publikoki eta aho batez, indarkeria matxista irmoki salatzen dugu, eta emakumeen aurkako indarkeria matxista behin betiko desagerrarazteko konpromisoa berresten dugu.

Lehenik eta behin, Pasaiaiko Udalak elkartasuna eta babesa adierazi nahi dizkie indarkeria kasu hauek pairatu dituzten emakumeei, baita haien gertukoei ere. Era berean, azpimarratzen du udal baliabide eta zerbitzuak haien eskura daudela.

Pasaiaiko Udaletik publikoki eta aho batez adierazi nahi dugu indarkeria matxista gaitzesten dugula. Horrelako gertaerak ez ditugu gure gizartean onartzen, eta erakunde, elkarte eta herritarrok lanean jarraituko dugu, indarkeria matxistarik gabe bizi gaitezen.

Horiek horrela, bat egiten dugu San Pedro Txikietan gertatutako eraso matxista gaitzesteko elkarretaratzearekin:

- San Pedroko frontoian, urriaren 18an, 19:30ean.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista gehiagorik ez!

Declaración institucional del Ayuntamiento de Pasaia, para rechazar la violencia machista

En este último año el Ayuntamiento de Pasaia ha tenido conocimiento de algunas agresiones machistas ocurridas en contextos festivos de nuestra localidad. En ese sentido, todos los partidos con representación en la corporación municipal de Pasaia, de forma pública y unánime. Denunciamos firmemente la violencia machista, y reafirmamos nuestro compromiso con la erradicación definitiva de la violencia machista contra las mujeres.

En primer lugar, el Ayuntamiento de Pasaia quiere mostrar su solidaridad y apoyo a las mujeres que han sufrido estos casos de violencia, así como a sus personas cercanas, subrayando que los recursos y servicios municipales están a su disposición.

El Ayuntamiento de Pasaia quiere mostrar públicamente y de manera unánime su rechazo a la violencia machista. Este tipo de hechos no tienen cabida en nuestra sociedad y, por tanto, seguiremos trabajando, tanto desde las instituciones y movimientos asociativos, como desde la ciudadanía, para poder vivir libres de violencia machista.

Con todo lo dicho, nos sumamos a la concentración de repulsa por las agresiones machistas ocurridas en San Pedro Txiki:

- Frontón (San Pedro), 18 de octubre, 19:30, concentración

¡No más violencia machista contra las mujeres!